



10. UNITATEA: EGOERA BALANTZEA ETA ANALISI FINANTZIEROA

- 1. Kontabilitatea eta enpresaren ondarea.**
- 2. Egoera- balantzea.**
- 3. Analisi finantzieroa eta Maniobra Fondoa**
- 4. Ratio finantzieroak**
- 5. Ariketak.**

1. KONTABILITATEA ETA ENPRESAREN ONDAREA

Kontabilitatea, enpresa-ondare, arau eta informazio ekonomiko guztia ikertzen dituen teknika ekonomikoa da.

Kontabilitatearen **helburua** informazio ekonomikoa eskaintzea da, bai enpresako erabiltzaile mota ezberdinei bai enpresaren ingurumen ekonomikoari ere:

- Zuzendariei, erabakiak hartzeko eta etorkizuneko ekintzak planifikatzeko.
- Jabe eta akziodunei, beren interesak ondo babesteko.
- Langileei, enpresaren emaitzen mende baitago beren lanpostuetan jarraitzeko.
- Enpresako hartzekodunei, beren kredituak kobratuko dituztenentz jakiteko.

Enpresa-ondarea, enpresa batek dituen ondasun, eskubide eta bete-beharrak dira, eta beren erabileraren arabera behar bezala baloratuta daude.

- Ondasuna: ukigai den guztia.
- Eskubideak: (kobratzekoak) bezeroek edo beste zordunek enpresari ordaindu behar dizkioten zorrak.
- Betebeharrak: (ordaintzekoak) enpresak hornitzailei edo beste hartzekodunei ordaindu behar dizkien zorrak.

Enpresaren aberastasuna, enpresaren ondasun eta eskubideen eta enpresaren zorren arteko kendura da. Kontabilitatean, kendura honi **ondare garbia**, garbia edo baliabide propioak deritzogu.


$$\text{Ondare garbia} = \text{ondasunak} + \text{eskubideak} - \text{betebeharrak}$$

Kontabilitatean, enpresen ondasun eta eskubideei aktiboa deritzegu, eta betebeharrak, berriz, pasiboa.

$$\text{Ondare garbia} = \text{aktiboa} - \text{pasiboa}$$

Aktiboa enpresak egindako inbertsio guztiak dira, eta **pasiboa**, berriz, inbertsio hauek finantzatzeko iturriak dira.

- **Aktiboak** enpresaren egitura ekonomikoa islatzen du, hots, bere inbertsio guztiak edo bere funtsen erabilera.
- **Pasiboak** enpresaren finantza-egitura islatzen du, hots, enpresak dituen finantzaketa bideen jatorria (baliabide propioak gehi enpresatik kanpoko pertsonekin dauzkaten zorrak)



1.1. ONDARE-ELEMENTUAK ETA ONDARE-MULTZOAK

Ondare-elementuak antzeko ezaugarriak dituzten elementuak dira. Adibidez, merkataritza-lokalak, biltegia eta bulegoak izeneko elementuak, “*Eraikinak*” izenpean biltzen dira denak. Hauetariko izen bakoitzari **kontua** esaten zaio.

Ondare-multzoek zerikusirik dauzkaten kontu batzuk batzen dituzte, hau da, ondarearen elementu homogeneoak adierazten dituzte. Ondare-multzo hauek aktiboa edo pasiboa osatzen dituzte:

- Aktiboaren elementuak erabilgarritasun edo likideziaren arabera (diru bihurtzeko gaitasuna) sailkatzen dira. Likidoenak azkenak ipiniko ditugu.
- Pasiboaren elementuak galdagarritasunaren arabera (zor galdagarrienak, ordaintzeko epea lehenago betetzen dutenak dira) sailkatzen dira. Galdagarrienak azkenak ipiniko ditugu.

2. EGOERA-BALANTZEA

Definizioa: enpresak momentu jakin batean ondare elementuak dituen inbentarioa da ondare multzotan taldekatuta.

Eskema eman baino lehen, hurrengoa argi izan behar dugu:

- Ez-korrontea: epe luzera > urte bete
- Korrontea: epe laburra \leq urte bete

Egoera-balantzearen ondare-multzoak **aktiboan eta pasiboan** sailkatzen dira. Guk erabiliko dugun eredu hau izango da:

AKTIBOA	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA
I. AKTIBO EZ-KORRONTEA	I. ONDARE GARBIA
- Ibilgetu ukiezina	II. PASIBO EZ-KORRONT.
- Ibilgetu materiala	III. PASIBO KORRONTEA
- Epe luzeko finantza-inbertsioak	
II. AKTIBO KORRONTEA	
- Izakinak	
- Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	
- Epe laburreko finantza-inbertsioak	
- Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	

Ondare-multzo bakoitzean kontu batzuk daude. Hurrengo eskeman arruntanak jarriko ditugu:

AKTIBOA	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA
I. AKTIBO EZ-KORRONTEA	I. ONDARE GARBIA
1. Ibilgetu ukiezin	Kapital / Kapital soziala
Jabetza industrial	Legezko erreserbak
Aplikazio informatikoak	Borondatezko erreserbak
(Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua)	Estatutu-erreserbak
2. Ibilgetu materiala	Ekitaldiko emaitza
Lurrak eta ondasun materialak	Diru laguntzak eta beste donazio batzuk
Eraikuntzak	II. PASIBO EZ-KORRONTEA
Instalazio teknikoak	Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak
Makineria	Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak
Tresneria	Epe luzera ordaintzeko efektuak
Altzariak	III. PASIBO KORRONTEA
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	Hornitzaileak
Garraio-elementuak	Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak
(Ibilgetu materialaren amortizazio metatua)	Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak
3. Epe luzeko finantza-inbertsioak	Hartzekodunak, ordaintzeko merkataritza-efektu
Epe luzeko ezarpenak	Ordaintzeko dauden lansariak
II. AKTIBO KORRONTEA	Ogasun Pub, kontzep. fiskalengatik hartzekodun
1. Izakinak	Gizarte Segurantz. organismoak, hartzekodun
Salgaiak	Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak
Lehengaiak	Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak
Produktu bukatuak	Epe laburrera ordaintzeko efektuak
Enbalajeak/bilgarriak	
Ontzikiak	
2. Zordun kom. Eta kobr. best. Kontuak	
Bezeroak	
Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak	
Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zordun	
Gizarte Segurantzako organismoak, zordun	
Lansarien aurrerakinak	
3. Epe laburreko finantza-inbertsioak	
Epe laburreko ezarpenak	
Akzioak	

4. Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	
Bankuak k/k	
Kutxa, €	
GUZTIRA	GUZTIRA

Orain kontu bakoitzaren esanahia emango ditugu:

AKTIBOA

I. AKTIBO EZ-KORRONTEA:

1. Ibilgetu ukiezina:

- Jabetza industriala: patente, markak edo beste jabetza industrialaren mota jabe izan edo hauen erabiltzeko eskubideen zenbatekoa.
- Aplikazio informatikoak: programa informatikoak.
- Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua: balio-galera jasaten duten ibilgetuko elementu guztiei urtero egiten zaien amortizazioa. Zeinu **negatiboa** du, beraz, kentzen dio balioa ibilgetuari.

2. Ibilgetu materiala:

- Lurrak eta ondasun materialak: orube, landa-lursail, meategi eta abarren balioa.
- Eraikuntzak: Eraikuntza, pabilioiak, lonjak eta abarren balioa.
- Instalazio teknikoak: ekoizpen-jardueran erabilera espezializatua duten unitate konplexuak dira. Honen barruan, eraikinak, makineria, orubeak eta beste batzuk daude. Adibidez, gasolindegia bat edo ur araztegi bat.
- Makineria: makinak.
- Tresneria: erremintak, tresnak.
- Altzariak: bulego-ekipamendua.
- Informazioa prozesatzeko ekipamenduak: ordenagailuak eta ekipamendu informatikoak.
- Garraio-elementuak: garraiatzeko erabil daitezkeen mota guztietako ibilgailuak (kamioiak, autoak, furgonetak...)
- Ibilgetu materialaren amortizazioa metatua: balio-galera jasaten duten ibilgetuko elementu guztiei urtero egiten zaien amortizazioa. Zeinu **negatiboa** du, beraz, kentzen dio balioa ibilgetuari.

3. Epe luzeko finantza-inbertsioak:

- Epe luzeko ezarpenak: epe finkorako ezarpenak edo bonoak... Beti epea urtebete baino gehiagokoa bada.

II. AKTIBO KORRONTEA

1. Izakinak:

- Salgaiak: enpresak transformatu gabe saltzeko erosten duen edozein produktu.
- Lehengaiak: transformazioaren bidez produktu bukatu bihurtzeko erosten diren materialak.
- Produktu bukatuak: enpresak fabrikatuak eta azken kontsumorako edo beste enpresa batzuetan erabiltzeko prest daudenak.
- Enbalajeak/bilgarriak: garraiatu behar diren produktuak eta salgaiak babesteko erabiltzen diren estalkiak.
- Ontzikiak: produktua zuzenean biltzen duten estalkiak; normalean produktuarekin batera saltzen dira.

2. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak:

- Bezeroak: enpresak kobratzeko duen eskubidea, kreditu bidez egindako salmentengatik (bere jarduera nagusia bada).
- Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak: bezeroei emandako kredituak dira, kanbio-letrekin formalizatuak daudenean.
- Ogasun Publikoa, hainbat kontzeptuengatik zordun: Ogasunak zerga itzulketa edo antzeko kontzeptuengatik enpresarekin dituen zorrak.
- Lansarien aurrerakinak: enpresako pertsonalari lansarien kontura emandako zenbatekoak.

3. Epe laburreko finantza-inbertsioak:

- Epe laburreko ezarpenak: bankuetan eperako kontuetan dituen aldeko saldoak, urtebete edo gutxiagoko epemuga badute.
- Akzioak

4. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak:

- Bankuak k/k: enpresaren aldeko saldoak kontu korronteetan.
- Kutxa €: eskudirua.

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

I. ONDARE GARBIA:

- Kapital: banakako enpresei dagokie. Jabeak egindako ekarpenen balioa da.
- Kapital soziala: merkataritza-sozietateei dagokie eta ekarpenen balioa da.
- Legezko erreserbak: enpresak banatu ez dituen irabaziak dira, kasu honetan legeak ezarritakoak.

- Borondatezko erreserbak: enpresak bere borondatez banatu ez dituen irabaziak dira.
- Estatutu-erreserbak: banatu ez dituen irabaziak dira enpresaren estatutuan ezarritakoa dagoelako.
- Ekitaldiko emaitza: urtealdi ekonomikoa amaitzean, eta bazkideek nahi bezala banatu baino lehen, enpresak dituen irabazien balioa da. Galerak izango balira, hemen ere agertuko lirateke baina zeinu negatiboarekin.
- Diru laguntzak eta beste donazio batzuk: Organismo Publiko batetik enpresak jasotzen dituen subentzioak.

II. PASIBO EZ-KORRONTEA:

- Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak: jasotako maileguak urtebete baino gehiagoko epea dutenean.
- Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak: ibilgetu erosteagatik hornitzaileekin egindako zorrak, urtebete baino gehiagoko epea dutenean.
- Epe luzera ordaintzeko efektuak: aurreko kontua bezala, baina zorrak igorpen-efektutan formalizatuak daudenean.

III. PASIBO KORRONTEA

- Hornitzaileak: lehengaiak, salgaiak... hornitzen dituztenekin ditugun zorrak.
- Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak: aurreko bezala, baina onartutako kanbio-letrekin formalizatuak daudenak.
- Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak: hornitzaile ez diren zerbitzu-emaeleekin ditugun zorrak (iturginarekin, arotzarekin...)
- Hartzekodunak, ordaintzeko merkataritza-efektuak: aurreko bezala, baina igorpen-efektu onartutan formalizatuak.
- Ordaintzeko dauden lansariak: enpresak langileekin duen zorra soldata osoa ez ordaintzeagatik.
- Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekodunak: enpresak (zergaduna delako) ordaindu beharreko tributuak.
- Gizarte Segurantzako organismoak, hartzekodunak: enpresak kotizazio eta beste betebeharrak batzuen ondorioz Gizarte Segurantzarekin dituen zorrak.
- Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak: jasotako maileguak urtebete baino gutxiagoko epea dutenean.
- Epe laburreko ibilgetu-hornitzaileak: ibilgetu erosteagatik hornitzaileekin egindako zorrak, urtebete baino gutxiagoko epea dutenean.

- Epe laburrera ordaintzeko efektuak: aurreko kontua bezala, baina zorrak igorpen-efektutan formalizatuak daudenean.

3. ANALISI FINANTZIEROA ETA MANIOBRA FONDOA

Analisi finantzieroaren helburu nagusia enpresaren **kaudimena (solventzia) eta likidezia aztertzea da**. Bi kontzeptu horiek oso garrantzitsuak dira:

- **KAUDIMENA**: Enpresak zorrak inbertsioen (aktiboa) bermearekin ordaintzeko duen ahalmenari deritzo; hau da, enpresak kaudimena izango du aktiboaren likidazio-balioa handiagoa bada pasiboaren (galdagarria) guztizkoa baino.
- **LIKIDEZIA**: enpresa batek inbertsioak (aktiboa) ordaintzeko bitarteko gustiz likido (kutzako edo bankuetako dirua) bihurtzeko duen ahalmenari esaten zaio. Hori zenbaterainokoa den jakinda, ikus daiteke badagoen ziurtatzerik zorrak behar bezala ordainduko direla. Aktibo bat zenbat eta likidagoa izan, orduan eta errezagoa izango da aktibo hori dirubihurtzea zorrak ordaintzeko.

3.1. MANIOBRA FONDOA EDO ERROTAZIOA FONDOA.

Definizioa: Ondare garbiko eta pasibo ez korronteko funtsez (baliabide propioak eta epe luzeko galdagarria) finantzatutako aktibo korrontearen zatia (epe laburreko inbertsioak).

Maniobra fondoarekin enpresaren oinarritzko analisi finantzieroa burutzen dugu. Honekin, enpresak nola finantziatzen den aztertuko du, baliabide propio, epe laburreko edo epe luzerako zorrekin. Aldi berean, ikusiko du daukan aktibo korrontearekin zorrak ordaintzen dituen edo ez, eta zeintzuk ordaintzen dituen (epe labur edota luzekoak).

Analitikoki, maniobra funtsa aktibo korrontearen (AK) eta pasibo korrontearen (PK) arteko aldea da. Bi zentzu ditu:

$$MF = AK - PK \text{ (aktibo korrontea - pasibo korrontea)}$$

edo

$$MF = (OG + PEK) - AEK \text{ (ondare garbia + pasibo ez-korrontea) - aktibo-ez korrontea}$$



MF Positiboa edo negatiboa izan daiteke.

- **Positiboa bada**, enpresaren egoera finantzarioa ona izango litzateke, hau da, aktibo korrontetik ateratzen den diruarekin bere epe laburreko zor guztiak ordaindu ditzake eta margena dauka epe luzerako zor zati bat likidatzeko. Beste modu batez esanda (bigarren formula dagokiona), enpresaren aktibo ez-korrontea epe luzeko zorrekin finantzatuko litzateke.

- **Negatiboa bada**, enpresa hartzekodunen lehiaketa batean sartuko litzateke, ordainketa-etenduran egoteagatik. Kasu honetan, aktibo korrontean sortzen den diruarekin enpresak ezin ditu bere epe laburreko zor guztiak ordaindu.

Beste modu batez esanda, epe luzeko inbertsio zati bat epe laburreko zorrekin finantzatuta egongo litzateke. Beraz, enpresak zor hori ordaindu beharko luke inbertsioak etekina eman baino lehenago.

Grafikoki, irudikatu dezakegu maniobra-fondoa horrela:




Beraz, enpresa batendako egokiena MF positiboa izatea da, baina hau zenbatekoa izan behar da? Horretarako ondare - egoera ezberdinak aztertuko ditugu, izan ere, ez da onena gehiegizko MF izatea.

3. 2. ONDARE EGOERAK

1.- ERABATEKO EGONKORTASUN FINANTZARIOA

Aktibo osoa baliabide propioekin finantzatzen da, beraz, ez dago itzuli beharreko zorrik. Maniobra-fondoa positiboa da baina agian gehiegizkoa.


Aholkua: neurrizko zorrak egin errentagarritasun handiago ateratzeko.



2.- EGONKORTASUN FINANTZARIO ARRUNTA

Egoera **ideala** da, eta bertan, pasibo ez-korronteak eta ondare garbiak aktibo ez-korronte osoa eta aktibo korrontearen zati bat finantzatzen dute. Maniobra-fondoaren tamaina enpresaren beharren eta jarduera-sektorearen ezaugarrien araberakoa izango da.


Aholkua: zenbatekoa bere jarduerarako nahikoa dela bermatu.



3.- ORDAINKETA-ETENDURA EGOERA (HARTZEKODUNEN KONKURTSOA)

Epe motzerako desoreka finantzarioa da. Izan ere, enpresak ezin ditu epe laburreko zor guztiak ordaindu aktibo korronteak sortzen duen diruarekin. Hau da, enpresak ezin die bere ordainketei aurre egin, hornitzaile eta hartzekodunekin dituen zorrak kobratzeko bezeroen saldoak baino handiagoak baitira.

Irtenbidea: enpresak bere zorrak negoziatu beharko lituzke epe laburreko zor zati bat epe luzera pasatuz.



4.- DESOREKA FINANTZARIOA EPE LUZERA

Kaudimen arazoek sortutako ezegonkortasun finantzarioa da, izan ere, enpresa **deskapitalizatuta dago** (ez dauka baliabide propiorik). **Porrotaren egoera oso gertu** dago. Ezin izango ditu zor guztiak ordaindu nahiz eta aktibo guztia likidatu.

Irtenbidea: oso zaila. Kapitala gehitu edo enpresaren desagertzea.



5.- PORROTA. Egoera larriena. Ez dago kapitalik ezta kaudimenik. Enpresaren desagerpena gertu dago.

	Finantza-egoera	Kausak	Ondorioak	Konponbideak
1	Erabateko egonkortasun finantzarioa	Gehiegizko finantziazio propioa: baliabide propioekin soilik finantzatzen da enpresa.	Erabateko segurtasuna, baina enpresak ezin ditu zorpetzearen onurak baliatu.	Zertxobait zorpetzea, kanpo-kapitalak erabiliz errentagarritasuna handitzeko.
2	Egonkortasun finantzario arrunta	AK > PK MF positiboa	Enpresarentzako egoera ideala da.	Maniobra-funtsa jarduerako premietarako behar adinakoa dela zaintzea baino ez.
3	Ordainketa-etendura	AK < PK MF negatiboa	Enpresak ezin ditu epe laburreko zorrak ordaindu.	Hornitzaileei ordaintzeko epea luzatzea, altxortegiaren plangintza hobetzea, eta hartzekodunetik zorrak birnegoziatzea.
4	Epe luzeko desoreka finantzarioa	MF negatiboa Galera-metaketa. Ondare garbia zero da (aktiboa eta pasiboa berdinak dira).	Deskapitalizazioa. Kaudimen urria.	Hartzekodunetik zorrak birnegoziatzea eta kapitala handitzea.
5	Porrota	MF negatiboa. Galera-metaketa eta pasiboa (guztizko pasiboa) aktiboa baino handiagoak dira.	Deskapitalizazioa. Kaudimena guztiz galtzea.	Oso konponbide zaila. Kapitala handitzea eta jarduera birdefinitze Enpresa desagertu egiten da.

DESOREKEN KONPONBIDE OHIKOENA: HARTZEKODUNEN KONKURTSOA

Juridiko prozesu bat da eta batez ere, **bi helburu ditu**: alde batetik hartzekodunen nahiak asetzea, eta beste aldetik enpresa bizirik irautea posiblea bada. Epaileari eskatu behar da, eta **bi mota** daude:

- **Borondatezko konkurtsoa**: enpresa zordunak eskatzen du eta bere kaudimen-gabezia justifikatu beharko du (kontabilitatezko dokumentuak, zergatien memoria, ondasunen eta eskubideen zerrenda eta bideragarritasun-proposamen bat).
- **Beharrezko konkurtsoa**: hartzekodun batek eskatzen badu eta frogatu beharko du enpresak ez duela bere betebeharririk betetzen.

Konkurtsoa deklaratu ondoren, ordainketa guztiak eteten dira eta zorren interesak ere. Epaileak administratzaile batzuk izendatuko ditu enpresaren kontuak gainbegiratzeko.

Konkurtsoaren faseak:

1. Egoeraren ebaluazioa: administratzaileek, bi hilabete epean, ondasunen eta eskubideen zerrenda bat aurkeztuko dute hartzekodunen zorrak ordaintzeko eta arazoaren irtenbide bat proposatuz.
2. Prozesuaren irtenbidea: bi aukera daude:

- **Hartzekodunen hitzarmena:** akordio bat da zorraren zenbatekoa gutxitzeko (zor kitatze edo barkamena) eta ordainketen epea luzatzeko (itxarote). Administrazioaileek enpresak bere jarduera jarraitu dezakeela uste badute horrela gertatuko da.
- **Enpresaren likidazioa:** ezin da hartzekodunekin akordio batera heldu. Askotan enpresaren ondarearekin ezin da zor guztiak ordaindu, beraz, legeak kobratzeko ordena zehazten du. Kobratzeko lehenak langileak dira eta azkenak bazkideak.

4. RATIO FINANTZIEROAK EDO FINANTZA-RATIOAK

RATIO	FORMULA	ESANAHIA	BALIO HOBEZINA
ERABILGARRI TASUNA	$E = \frac{\text{Eskudirua}}{\text{Pasibo.korrontea}}$	Epe laburreko zorren proportzioa ordaintzeko gaitasuna neurtzen du kutxan edo bankuetan daukan diruarekin, hau da, altxortegiaren bidez.	$0,3 < X < 0,4$
DIRUZAINZTA ALTXORTEGI A	$D = \frac{\text{zord} + \text{epelab.inb} + \text{eskud}}{\text{pasibo.korrontea}}$	Bere balio hobezina lortzen ez badu ordainketa-etenduraren arriskua egongo litzateke bere salgaiak berehala saltzen ez baditu eta kobratzen ez baditu. Oso altua bada, gehiegizko likidezia dago, hau da, enpresak etekinik gabeko aktiboak dituela esan nahi du.	$0,8 < X > 1,2$ (1etik gertu)
LIKIDEZIA	$L = \frac{\text{aktibo.korrontea}}{\text{pasibo.korrontea}}$	Epe laburreko kaudimena. Bat baino gutxiagoko balioa badu ordainketa-etendura egongo da. Oso altua bada, etekinik gabeko aktiboak ditu.	$X \geq 1$ (1,5-2)
BERMEA	$B = \frac{\text{aktiboa}}{\text{pas.korr} + \text{pas.ez} - \text{korr}}$	Epe luzeko kaudimena (bere zorrei aurre egiteko duen gaitasuna). Bat baino gutxiagoko balioa badu porrot arriskuan egongo da.	$X \geq 1$ (2tik gertu hobeto)
AUTONOMIA	$A = \frac{\text{ondare.garbia}}{\text{pas.korr} + \text{pas.ez} - \text{korr}}$	Zenbat eta altuagoa, orduan barne finantza-autonomia handiagoa izango du.	$1 < X > 1,5$ (2tik gertu hobeto).
ZORPETZE OSOA	$Z = \frac{\text{pas.korr} + \text{pas.ez} - \text{korr}}{\text{ondare.garbia}}$	Kanpo finantzaketarekiko duen mendekotasuna neurtzen du baliabide propioekin konparatuz.	$X \leq 0,5$
IBILGETUA	$I = \frac{\text{akt.ez} - \text{korr}}{\text{ond.garb} + \text{pas.ez} - \text{korr}}$	Epe luzeko zenbat inbertsio (Ibilgetua edo A. ez korr.) finantzatzen den baliabide propioekin eta epe luzerako zorrekin finantzatzen den neurtzen du. Bat baino handiagoko balioa badu ordainketa-etenduran egongo litzateke.	$X \leq 1$

ARIKETA - ADIBIDE BAT

Enpresa batek oinetakoak salerosten ditu. Hurrengo datuak lortu ditugu:

1. Biltegian dituen zapatek 2.250 €-koa balioa dute.
2. Enpresariaren ekarpena ??????.
3. Shoe enpresari zapatak erosi zizkion eta oraindik 1.750 € zor dizkio.
4. Erabiltzen duen lokalak 200.000 €-ko balioa du (%20 lurraren balioa da)
5. BBKn duen kontu korrontean 4.000 € ditu.
6. 800 € balio duen ordenagailuak.
7. Oinetakoak garraiatzeko kamioiak 50.000 €-ko balioa du.
8. BBKri 50.000 €-ko mailegua eskatu dio. 3 urtetan amortizatu beharko du.
9. Gizarte Segurantzarekin 800 €-ko zorra du.
10. Enpresan erabiltzen dituzten altzariak 1.750 € balio dute.
11. BBVAn 8.500 €-ko zorra du eta 6 hilabetetan itzuli behar du.
12. Hornitzaileei 1.800 € ordaindu behar dizkien truke letrak.
13. Bezeroek 5.000 € zor diote.
14. Linux-Antigates enpresari erositako ordenagailua ordaindu gabe dago.
Urtebetean 350 €-ko zorra garbitu beharra dago.
15. Ibilgetu materialaren amortizazioa 100.000 €-koa da.
16. Informatika programa batzuk erosi ditu eta 200 € ordaindu ditu.
17. Langile bati 200 €-ko lansariaren aurrerakina egin dio.
18. Daukan eskudirua, 300 €
19. Legeak agintzen duen gordetzeko dirua, 2.000 €
20. Ekitaldiko galerak, 3.000 €

Datu hauekin honako hau eskatzen da:

1. Egoera-balantzea ondare masatan sailkatuta.
2. Maniobra Fondoa kalkulatu, bere esanahia azaldu eta irudikatu.
3. Ondare eta Finantza analisisia egin, behar diren ratioak kalkulatu.

1.- **EGOERA-BALANTZEA**

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
I. AKTIBO EZ-KORRONTEA	152.750	I. ONDARE GARBIA	101.300
1. Ibilgetu ukiezina	200	Kapitala	102.300
Aplikazio informatikoak	200	Legezko erreserbak	2.000
2. Ibilgetu materiala	152.550	Ekitaldiko emaitza	(-3.000)
Lurrak eta ond. materialak	40.000	II. PASIBO EZ-KORRONTEA 50.000	
Eraikuntzak	160.000	Kreditu-erakund. epe luz. zorr.	50.000
Informaz. prozes. ekipam.	800	III. PASIBO KORRONTEA 13.200	
Garraio-elementuak	50.000	Hornitzaileak	1.750
Altzariak	1.750	Gizarte Seg. Organ., hartzek.	800
Ibilgetu mat. amort. Metatua	(-100.000)	Kreditu-erak. Epe lab. Zorrak	8.500
II. AKTIBO KORRONTEA	11.750	Hornitz., ordaintzeko merk-efek	1.800
1. Izakinak	2.250	Epe laburreko ibilgetu-hornitz	350
Salgaiak	2.250		
2. Zordun kom. eta kobr. beste kont	5.200		
Bezeroak	5.000		
Lansariaren aurrerakinak	200		
4. Eskud. Eta beste akt. lik. baliokid	4.300		
Bankuak k/k	4.000		
Kutxa €	300		
GUZTIRA	164.500	GUZTIRA	164.500

2.- **MF = AK – PK (aktibo korrontea – pasibo korrontea)**

$$MF = 11.750 - 13.200 = - 1.450$$

Negatiboa denez, enpresa hartzekodunen lehiaketa batean sartuko litzateke, ordainketa-etenduran egoteagatik. Hau da, aktibo korrontean sortzen den diruarekin enpresak ezin ditu bere epe laburreko zor guztiak ordaindu.

AKTIBOA	OND. GARB. ETA PASIB.	
AKTIBO EZ-KORRON TEA = 152.750 €	OND. GARB + PAS.EZ-KOR = 151.300 €	MF < 0 (- 1.450)
AKT. KORR. = 11.750 €	PASIBO KORRONTEA = 13.200 €	

3.- Ratioak:

$$E = \frac{\text{Eskudirua}}{\text{Pasibo.korrontea}} = \frac{4.300}{13.200} = 0,33$$

$$D = \frac{\text{zord} + \text{epelab.inb} + \text{eskud}}{\text{pasibo.korrontea}} = \frac{5.200 + 0 + 4.300}{13.200} = 0,72$$

$$L = \frac{\text{aktibo.korrontea}}{\text{pasibo.korrontea}} = \frac{11.750}{13.200} = 0,89$$

$$I = \frac{\text{akt.ez} - \text{korr}}{\text{ond.garb} + \text{pas.ez} - \text{korr}} = \frac{152.750}{101.300 + 50.000} = 1,01$$

$$B = \frac{\text{aktiboa}}{\text{pas.korr} + \text{pas.ez} - \text{korr}} = \frac{164.500}{13.200 + 50.000} = 2,60$$

$$A = \frac{\text{ondare.garbia}}{\text{pas.korr} + \text{pas.ez} - \text{korr}} = \frac{101.300}{13.200 + 50.000} = 1,60$$

$$Z = \frac{\text{pas.korr} + \text{pas.ez} - \text{korr}}{\text{ondare.garbia}} = \frac{13.200 + 50.000}{101.300} = 0,62$$

Finantza-ratioak kalkulatu ondoren komentatuko ditugu emaitzak.

Epe laburreko kaudimena baloratzeko ratio batzuk erabiliko ditugu. Erabilgarritasun ratioa balio hobezinaren barruan dago, hau da, 0,3-0,4 bitartean (0,33 gure kasuan). Beraz, enpresak altxortegiaren bitartez likida litezke epe laburreko zorraren %33a.

Diruzaintza ratio ez da heltzen balio hobezinera, gertu dago, baina 0,72 balioa du eta 1 baino gehiago izatea hobe da. Horrek esan nahi du enpresa ordainketa-etendura egoeran egon daitekeela bere izakinak berehala saltzen eta kobratzen ez baditu. Aldi berean, likidezia ratioa aztertuta ikusten dugu ordainketa etenduran dagoela, bat baino gutxiagoko balioa duelako (0,89 hain zuzen ere). Hau indartzen da maniobra-fondoaren emaitza hartzen badugu: negatiboa denez, enpresak ezin ditu ordaindu bere laburreko zor guztiak aktibo korrontetik ateratzen duen diruarekin. Eta lbilgetu ratioaren balioa hartzen badugu, berriro

indartzen da ideia hau. Ratio honen balio hobezina bat baino gutxiagokoa izan behar da, eta gure kasuan pixka bat altuagoa da. Horrek esan nahi du enpresak aktibo ez-korrontea ezin duela baliabide propioekin eta epe luzeko finantzazioarekin aurre egin eta aktibo ez korroentearen zatitxo bat epe laburreko zorrekin finantzatzen duela, hau da, zor hori ordaindu beharko du, aktibotik etekina lortzen duen baino lehenago.

Epe luzerako kaudimena komentatzeko bermea erabiliko dugu. Ratio honen balio hobezina bat baino gehiagokoa izan behar da eta 2tik gertu. Gure enpresak 2,60 balioa du, beraz ez dauka porrot egiteko arriskurik.

Enpresaren **autonomia finantzarioa** ikusteko bi ratio dauzkagu. Alde batetik, autonomia ratioa. Bere balio hobezina 2tik gertu egotea da, eta enpresa honek 1,60 dauka. Ez da datu txarra (ona da), baina enpresaren egoera hobeto aztertzeko zorpetze osoaren ratioa behar dugu. Ratio honen balio egokia 0,5 baino gutxiagokoa izan behar du eta kasu honetan 0,62 da, gutxigatik balio hobezinetik pasatzen da, beraz, kanpo finantzaketaren pisua nahiko altua da baliabide propioekin konparatuz. Hau da, kanpo finantzaketarekiko duen mendekotasuna altua da.

Laburbilduz, enpresa honek epe laburrean likidezia arazoak ditu eta epe luzean bere zorpetzea altutxoa da, beraz, baliabide propio gehiago lortu beharko luke proportzioa hobetzeko. Seguraski, hartzekodunen lehiaketa aurkeztu beharko du ordainketa-etendura konpontzeko.

5. ARIKETAK

1. Bete hurrengo taula:

Lehenengo zutabea: Ondasunak (O), eskubideak (E) eta betebeharrak (B)

Bigarren zutabea: Aktiboa (A), ondare garbia (OG) eta pasiboa (P)

Hirugarren zutabea: Eskudirua (ES), Epe laburreko finantza-inbertsioak (FI), Zordun komertzialak (ZK), Izakinak (I), Aktibo ez-korrontea (AEZ), Pasibo korrontea (PK), Pasibo ez-korrontea (PEZ), Ondare garbia (OG).

KONTUA	1.	2.	3.
Kutxa, €			
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua			
Produktu bukatuak			
Ordaintzeko dauden lansariak			

Hornitzaileak			
Zerbitzu-emateagatiko hartzekodunak			
Eraikuntzak			
Makineria			
Aplikazio informatikoak			
Legezko erresebak			
Altzariak			
Garraio-elementuak			
Bezeroak			
Ekitaldiko emaitza			
Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik zordun			
Bankuak, k/k			
Salgaiak			
Lurrak eta ondasun naturalak			
Lansarien aurrerakinak			
Akzioak			
Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak			
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak			
Epe laburrera ordaintzeko efektuak			
Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritza-efektuak			
Estatutu-erresebak			
Jabetza industrialak			
Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak			
Ontzikiak			
Epe laburreko ezarpenak			
Gizarte Segurantzako organismoak, hartzekodun			
Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak			
Kapital			
Epe luzera ordaintzeko efektuak			
Kreditu-erakundeekiko epe laburreko zorrak			

2. Bete hurrengo taula:

ONDARE-ELEMENTUAK	KONTUAREN IZENA	ONDARE-MULTZOAK	KORR / EZ-KORRON	AKTIBOA / PASIBOA
Eskudirua				
Banketxe batetan daukan dirua				
Kobratu gabeko fakturak, 60 egunetara (Jarduera nagusia)				
Patente batetik ordaindu behar duena				
Transformatu gabe saltzeko produktuak				
Ordenagailua				
Banaketa egiteko furgoneta				
Mahaiak, aulkiak...				
Ordaindu gabeko fakturak, 30 egunetara				
Balio-galera jasaten duen makina bat				
2 urterako mailegu bat				
Jabearen diru-ekarpena				
Programa informatikoak				
Salgaiak babesteko estalkiak				
6 hilabeterako mailegu bat				
Pertsonalari lansarien kontura zenbatekoak				
Makina erosteagatik zorra (epea 4 urte)				
Langileekin duen zorra soldata osoa ez ordaintzeagatik				
Furgoneta erosteagatik zorra (igorpen efektuetan eta epea 3 urte)				

3.- EKAINA 2013. "TRAKE S.A." enpresak traktore-salerosketan dihardu.

Ondare-elementu hauek ditu 2011ko abenduaren 31n:

1. Lurrak eta ondasun naturalak:	123.000 €
2. Altzariak:	23.000 €
3. Biltegian dituen traktoreak:	120.000 €
4. Erreserbak:.....	51.000€
5. Traktoreen erosketagatik ordaintzeko dituen fakturak:	66.000 €
6. Traktoreen salmentagatik kobratzeko dituen fakturak:	105.000 €
7. Ordenagailuak eta inprimagailua:	2.000 €
8. Bezeroei kobratzeko letrak:	45.000 €
9. Bere jarduera garatzeko duen lokala:	370.000 €
10. Bankuan daukan dirua:	88.000 €
11. Enpresako kutxan daukan eskudirua:	2.000 €
12. Kreditu-erakunde bati 4 urteren ondoren itzuli beharreko mailegua:	60.000 €
13. Hornitzaileei ordaintzeko letrak:	84.000 €
14. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua:	17.000 €
15. Gizarte Segurantzarekin duen zorra:	15.000 €
16. Ekitaldiko emaitza:	54.000 €
17. Ogasun publikoarekin BEZagatik duen zorra:.....	6.000
18. Kapital soziala.....	?

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masetan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:

Ibilgetua

Diruzaintza edo altxortegia

Likidezia

Zorpetze osoa

Finantza-autonomia

4.- UZTAILA 2013 - UNAMUNO SA aroztegian, ondarea, ekitaldiaren amaieran, elementu hauek

osatzen dute:

Enpresan duen eskudirua	2.600 €
Bulegoan dauden altzariak	6.000 €
Kapital Soziala	????
Ogasun Publikoarekin duen zorra	70.000 €
Bezeroei kobratzeko dituen letrak.....	22.880 €
18 hilabete barru BBVAri itzuli behar dion mailegua	84.000 €
Biltokian dagoen zura	16.000 €
Tailerrean dagoen makineria.	660.000 €
Zura erosteagatik MADERAS CARPASARI zor diona.....	74.000 €
Erreserbak	230.000 €
Tailerra kokaturik dagoen pabiloia	347.300 €
BBKko mailegua, 6 hilabete barru itzuli beharrekoa	6.000 €
Zenbait lan egiteagatik kobratzeko dituen fakturak	3.120 €
Lan egiteko erabiltzen duen kamioia.....	84.000 €
Hartzekodun batzuekin onartuak dituen ordaintzeko letrak	11.000 €
Bulegoan dituen ordenagailuak	2.700 €
Gizarte Segurantzarekin duen zorra	2.000 €
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	291.000 €
BBVAko kontu korrontean duen dirua.....	23.400 €

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.
 - Zorpetze osoa.
 - Diruzaintza edo altxortegia.
 - Finantza-autonomia.
 - Likidezia.

5. EKAINA 2010. CORTI, S.A. artilezko jertseak ekoizten dituen enpresa bat da. Abenduaren 31n ondare elementuak ditu:

- Ehuntzeko makinak: 54.750 €
- Eskudirua kutxan: 4.500 €
- Makinak 3 hilabetera erosteagatik ordaindu behar dituen fakturak: 43.800 €
- Biltegian dituen jertseak: 19.500 €
- Lantegia 288.300 €-an baloratua dago, horietatik 108.000 € lurraren balioari dagozkio
- Gizarte Segurantzari zor diona: 15.000 €
- Saldoa kontu korranteetan, zenbait bankutan: 36.000 €
- Alarma bat ipintzeagatik 780 € zor du
- Biltegian duen artilearen balioa 4.500 €-an baloratua dago
- Bezeroei kobratzeko dituen fakturak: 30.750 €
- Artilearen hornitzaileei ordaintzeko dituen truke-letrak: 32.250 €
- Banku batek emandako mailegua, 3 urtera itzultzekoa: 105.000 €
- Ogasunari zor dion BEZa: 68.550 €
- Lege-erreserbak: 32.250 €
- Artilearen hornitzaileei ordaintzeko dituen fakturak: 17.700 €
- Bezeroek onartutako truke-letrak 37.580 €
- Bazkideek egindako ekarpenak ????

Datu horiek kontuan izanik:

- a) Osatu enpresaren egoera-balantzea, ondare-masatan sailkaturik.
- b) Kalkulatu laneko kapitala (maniobra-fondoa), irudikatu grafikoki eta adierazi emaitzaren esanahia.
- c) Azter ezazu enpresaren egoera finantzarioa ratio hauek erabiliz:
 - Diruzaintza edo altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Zorpetze osoa
 - Ibilgetua

6.- UZTAILA 2014. SUKALDARI S.A. enpresak sukaldeko altzarien salerosketan dihardu, eta 2013. urteko ekitaldiaren bukaeran bere ondarearen datuak aurkeztu ditu:

- Makineria	67.000 €
- Altzariak.	103.500 €
- Enpresaren aldeko saldoa bankuan duen kontu korrontean.	9.000 €
- 4 urteko epean itzultzeko mailegua	135.000 €
- Informatika-ekipoak	8.100 €
- Banaketarako furgoneta	22.000 €
- Pabiloiaren balioa	90.500 €
- Epe luzerako zorrak ibilgetu-hornitzaileekin.	14.400 €
- Kobratzeko dauden fakturak.	22.500 €
- Ordaindu gabeko fakturak.	25.200 €
- Saltzeko prest dauden armairuak	45.000 €
- Gizarte Segurantza hartzekoduna	3.600 €
- Bezeroei onartutako truke-letrak	34.200 €
- Bulegoko kutxa	6.300 €
- Hornitzaileek onartutako letrak	18.900 €
- BEZaren likidazioagatik Ogasunari zor zaiona	4.500 €
- Kapital soziala	148.500 €
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	40.000 €
- Legezko erreserba	?????????

Datu horietatik abiatuturik, hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko, eta emaitzak aztertzea
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:

Ibilgetua
Zorpetze osoa
Altxortegia
Likidezia
Bermea
Finantza-autonomia

7. EKAINA 2015. AZKARRAGA enpresa aroztegi bat da. 2012ko abenduaren 31n ondare-elementu hauek ditu:

1. Tailerra kokaturik dagoen pabiloia	347.500 euro
2. Kutxabanken mailegua, 8 hilabete barru itzuli beharrekoa	6.200 euro
3. Lan egiteko erabiltzen duen kamioia.....	84.200 euro
4. Bulegoan dauden altzariak	6.200 euro
5. Biltegian dagoen zura	16.000 euro
6. Hartzekodun batzuekin onartuak dituen letrak.....	11.200 euro
7. Erreserba legalak.....	230.200 euro
8. Zenbait bankutan kontu korranteetan duen dirua	23.600 euro
9. Zur-hornitzaileei zor diena	74.200 euro
10. Enpresak duen eskudirua	2.800 euro
11. 18 hilabete barru bankuari itzuli behar dion mailegua.....	84.200 euro
12. Ogasunarekin duen zorra	70.200 euro
13. Zenbait lan egiteagatik kobratzeko dituen fakturak.....	3.320 euro
14. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	291.200 euro
15. Bulegoan dituen ordenagailuak	2.900 euro
16. Tailerrean dagoen makineria	660.200 euro
17. Gizarte Segurantzarekin duen zorra	2.200 euro
18. Bezeroei kobratzeko dituen letrak.....	23.080 euro
19. Kapital soziala.....	??????????????

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Zorpetze osoa
 - Ibilgetua

8.- UZTAILA 2015. ITA Gailuak enpresak goi-segurtasuneko sarrailetarako altzairu bereziko doitasun-mekanismoak ekoitzi eta saltzen ditu. Joan den urteko abenduaren 31n, haren ondarea honela zegoen banatuta, eurotan:

1.- Erreserbak.....	125.000,-
2.- 4 urteko mailegua.....	25.000,-
3.- Altzairu berezia.....	25.000,-
4.- Doitasuneko gailuaren patentea.....	15.000,-
5.- Salmentak garraiatzeko kamioiak.....	115.000,-
6.- Ordaindu beharreko efektu sinatuak	3.000,-
7.- Lantegia eta zenbait tailer	650.000,-
8.- KARPISKY antibirus informatikoa	5.000,-
9.- Kobratzeko zenbait faktura.....	12.000,-
10.- Bankuko kontu-korrontean	80.000,-
11.- Foru Aldundiak emandako diru-laguntza.....	25.000,-
12.- Kapitala	??
13.- Salgai dauden mekanismoak	650.000,-
14.- Ordaintzeko zenbait faktura (altzairu-erosketa dela eta).....	5.000,-
15.- BEZagatik Ogasun Publikoari zor diona.....	12.000,-
16.- Enpresan dauden altzariak	65.000,-
17.- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.....	25.000,-
18.- Ibilgetu immaterialaren amortizazio metatua.....	1.000,-
19.- Mekanismoak fabrikatzeko makineria.....	95.000,-
20.- Enpresaren sistema informatikoa	20.000,-
21.- Gizarte Segurantzari zor diona.....	3.000,-
22.- Kutxa gotorrean dagoen dirua.....	20.000,-
23.- Mekanismo-salmentagatik kobratu beharreko efektuak	7.000,-
24.- Lantegiaren orubea	200.000,-

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Bermea.
 - Zorpetze osoa.
 - Likidezia.

- Altxortegia.
- Ibilgetua.
- Finantza-autonomia.

9.- EKAINA 2016. AZKUNE SA enpresaren jarduera ekonomikoa altzariak egin eta merkaturatzea da. Azkenengo urteko abenduaren 31n, haren ondarea (eurotan) elementu hauekin osaturik zegoen:

1. Lokalak.....	30.000.000
2. Lurrak	10.000.000
3. Lehengaien hornitzaileekin duen zorra.....	200.000
4. Gizarte Segurantzarekin duen zorra.....	160.000
5. Bazkideen ekarpenak	12.000.000
6. Ordenagailuak.....	500.000
7. Legezko erreserbak	2.000.000
8. Programa informatikoak	400.000
9. Altxariak saltzeagatik kobratzeko dituen fakturak	250.000
10. Biltegian gorderik dauden lehengaiak	300.000
11. Altxariak garraiatzeko kamioiak.....	3.000.000
12. Ibilgetuaren amortizazio metatua	6.000.000
13. BBVAn daukan kontu korrontearen saldoa	100.000
14. Kamioi bat erosteagatiko zorra, 6 hilabete barru ordaindu beharrekoa.....	200.000
15. Lehengaiak erosteagatik onartutako letrak.....	90.000
16. Kamioi batzuk erosteagatiko zorra, 13 hilabete barru ordaindu beharrekoa . ????????	
17. Bezeroek onartutako letrak	250.000
18. Eskudirua	20.000
19. Foru Ogasunarekin duen zorra.....	75.000
20. Kutxabankek emandako mailegua, 2 urte barru itzuli beharrekoa.....	15.000.000
21. Lurrak erosteagatiko zorra, 3 urte barru ordaindu beharrekoa	8.000.000
22. Biltegian gorderik dauden altxariak	500.000
23. Urteko emaitzak (irabaziak).....	745.000

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:

- Altxortegia
- Likidezia
- Bermea
- Zorpetze osoa
- Ibilgetua
- Finantza-autonomia

10.- UZTAILA 2016. ASPE SL enpresak ispiluak ekoizten eta saltzen ditu.

Ondare-elementu hauek ditu 2015. urtearen bukaeran:

1. Altzariak.....	2.700 €
2. Altzariengatik 6 hilabete barru ordaindu beharrekoa	2.700 €
3. Lurrak eta ondasun naturalak.....	31.300 €
4. Makinak	17.000 €
5. Lantegiaren lokala	135.600 €
6. Biltegi dituen ispiluak	13.600 €
7. Biltegi dituen ispiluak egiteko lehengaiak	3.400 €
8. Hornitzaileei erosketengatik ordaindu behar dizkien fakturak.....	23.000 €
9. Ispiluen salmentagatik kobratzeko dituen fakturak	22.500 €
10. Ordenagailua eta inprimagailua.....	3.800 €
11. Bankuan daukan dirua.....	29.000 €
12. Enpresako kutxan daukan dirua	2.000 €
13. Kreditu-erakunde bati 4 urteren ondoren itzuli beharreko mailegua .	28.700 €
14. Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.....	20.400 €
15. Ogasunari BEZagatik zor dio.....	8.500 €
16. Ekitaldiko emaitza.....	24.000 €
17. Erreserbak.....	9.500 €
18. Kapital soziala	?????

Eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea egitea, ondare-masatan sailkatua.
- b) Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzea, eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua.
 - Altxortegia.
 - Likidezia.



- Finantza-autonomia.
- Zorpetze osoa.

